



4 EUSKAL INAUTERIAK Berrikuntzak Euskal Inauterietako egitarauan

Otsailaren 6 eta 7an, Lasarte-Oria Inauterietan murgildua izango da. Larunbatean, itsaso izango da gaia. Igandean, berriz, Euskal Inauterien txanda izango da. Aldaketa batzuk igarri dituzte antolatzaileek, hala nola, Zubietatik Lasarte-Oriara desfilea eta zubietarren parte hartzea.

5 EUSKARA AEK jendea Lasarte-Orian aurkeztu zen

Asteazkenean AEK-k bere egitasmo berria aurkeztu zuen Jalgi Kafe Antzokian, AEK jendea. Urtero euskara ikasten edo ikasi duen eta euskaraz bizi den pertsona baten ibilbidea erakutsiko da. 2016 urteko eta egitasmoko lehen protagonista eta Juanma Iturriondo herritarra izango da. Horretarako, bere bizipenei buruzko bideo bat egin dute. Hau AEK-ren orrialdean edo Youtuben ikusgai dago.



Paco Etxeberria mediku forenseak 'Torturaren ikerketa Euskal Herrian. 1960-2010' izeneko ikerketaren nondik-norakoak azaldu zituen atzo.

Bizikidetza elkarrekin jorratuz

Oroimen kolektiboa eta tortura izan dira asteon landutako gaiak

Lasarte-Oriako udal taldeek adostuta eta Baketik elkartearen laguntzarekin, 'Bizikidetza berreraikitzen' jardunaldiez gozatu dute hainbat herritarrek aste honetan. 'Oroimen kolektibo eta bateratzailea' eta 'tortura Euskal Herrian' gaiak jorratu dira, Andres Krakenberger eta Paco Etxeberriaren eskutik hurrenez hurren, Antonio Mercero aretoan.

Eusko Jaurlaritzak eskatuta, 'Torturaren ikerketa Euskal Herrian. 1960-2010' izeneko ikerketan murgilduta dago Paco Etxeberria mediku forensea. Antonio Mercero aretoan hitzaldia eskaini zuen atzo, inbestigazioaren nondik-norakoak azalduz eta hemen torturaren gaiari zein trataera eman zaion aztertuz.

Etxeberriak jakinarazi zuenez, 5.000 bat tortura-salaketa dituzte esku artean; indar polizialek atxilotu bitartean gertatutako kasuak dira horiek.

Era berean, medikuak azpimarratu zuen biktima denek ez dutela "sufrimendu berdina" jasan, baina berdindu egiten direla estatus hori hartzean, eta denek dituztela "hiru oinarritzko eskubide": Egia, erreparazioa eta justizia.

'Oroimen kolektibo eta bateratzailea helburu'

Hori izan zen Andres Krakenberger giza eskubideen aldeko aktibistak astearte arratsaldean eskaini zuen hitzaldiaren izenburua. Memoria kolektiboa



Oroimen kolektiboa eta bateratzailea izan zuen Andres Krakenbergerrek asteartean.

eraikitzea "zaila, baina posible" dela nabarmendu zuen. "Beharrezkoa da aldatzeko borondatea edukitzea, eta instituzioen zein herritarren elkarlana. Ez du balio biktimak bereiztea, nireak zureen aurka eta, batez ere, egia dosi handiak behar dira memoria

kolektibo eta bateratzailea eraikitzeko".

Biktimen Inguruko Nazio Batuen Printzipioetan oinarrituta, Krakenbergerrek azaldu zuen zer den biktima izatea, eta baita horiek dituzten eskubideak ere: egiarena eta erreparazioarena, besteak beste.

Otsailaren
1ean ez da
TXINTXARRI-rik
argitaratuko.
Asteburuko
informazio
guztia
txintxarri.eus
atarian
eskuragarri

LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain

IKASTETXEKO AUTOBUSA
— LASARTE - ANDOAIN —
LA SALLE BERROZPE IKASTETXEA

LA SALLE BERROZPE IKASTETXEA

Urtarrilaren 25etik otsailaren 5era

MATRIKULAZIOA 2016 / 2017

- HH Haur Hezkuntza
- LH Lehen Hezkuntza
- DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Neure kabuz



Gorka Lasa
Errefusatuak

Urtero bezala, aurten ere Saharako errefuxiatuen aldeko elikadura-bilketak kanpaina abian da. 40 urte dira Tinduf-eko basamortuan kanpalekuak eraiki eta bertan dirautela oso baldintza gogorretan, Espainia eta Marokoren arteko konponbide politiko baten zain. Trabarik egiten ez duten bitartean, hantxe zokoraturik betirako.

Europar ere, zeresan handia ematen ari da Siriako gerraren ondorioz errefuxiatu andana eragiten ari den gertakaria.

Egunez egun, goraka doa sufrimendutik, minetik eta miseriatik ihesi doazenen kopurua. Askok, familia atzean utzi, eta herrialdetik alde egin behar izan dute. Batzuk Siria inguruetara desplazatu diren arren, beste batzuek Europako bidea hartu dute. Trabak baino ez dituzte siriarrak errepresiotik ihes egiteko ibilbidean. Errefuxiatu oldeak oztupoak aurkitu ditu mugak zeharkatzeko. Agintariak ezadostasunean eta kontraesanean murgilduta dabilta; egoera ahalik eta duinenean bideratzea da beraien betebeharra, atek itxi ordez sarbidea erraztuz mugetan pilatu ordez. Inork gutxi nahi ditu errefuxiatuak etxe inguruan.

Gurean, berriz, inoiz eman den zabor sortzerik handiena da kezka iturri. Urtez urte goraka joan den kopurua izan da zabortegeak gainezka ixteran eraman duena; zaborra sortzek ez du arazorik; desegiteak ematen ditu lanak. Zaborra alde batetik bestera darabilkigu zer egin asma ezinik. Batzuek kotxean sartu eta ondoko herrira eramaten dute bertan botatzeko. Zabor gehiena, berriz, kamioietan beste lurralde batera eramaten dute, bertako herritarren haserre sortaraziz.

Agintariak ez datoz bat hondakinen kudeaketaren sistemarekin. Iritzi kontrajarriak daude, erraustegia, atez-atekoa, edo bosgarren kontenedorearen gain. Arazo ekonomikoa, eta nola ez, politikoa bilakatu da. Inor gutxi nahi du zaborra etxe inguruan.

Gizakia da munduan zabor eta arazo gehien sortzen dituen biziduna. Baina, zaborrak zabor eta arazoak arazo, gizakia ez da zaborra, eta ez da zabor gisa kudeatu behar.

Zorion agurrak



Patxi



Blasa



June eta Karla

Zorionak aitona, Zorionak eta ondo Zorionak guapisimas! Oso ondo pasa zuen milioika muxu zuretza-pasa eguna. Muxu urtebetetzean eta muxu pila bat, maitiak! ko. Asko maite zaitugu. handi bat zure familia-Amaieur, Ekain, Arantxi ren partetik. eta Raul.



Nerea



Aner

Zorionak zure II. Zorionak elemento! urtebetetzean, familia-24 urte! Hasi zaitzen ren partetik. Muxu belarriak eta kartera asko. prestatzen, asteburu gogorra datorkizu eta! Lagunen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48, txintxarri@txintxarri.eus edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Mario Sayavera Navarro, urtarilaren 22an.
- Bruno Exposito Agra, urtarilaren 19an.
- Sergio Lopez Perez, urtarilaren 18an.

Heriotzak

- Maria de la Calle Garcia, urtarilaren 27an, 88 urte zituela.
- Pilar Garmendia Azurmendi, urtarilaren 24an, 84 urte zituela.
- Juantxo Dorronsoro Uranga, urtarilaren 21ean, 49 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 29 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 30 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Igandea, 31 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astelehena, 1 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteartea, 2 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 3 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 4 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Garaje marraduna alokatzen dut Eusko Tren geltokitik gertu. 11 metro karratu. Harremanetarako, 687 27 12 88.

Salerosketa

- Bizkien karroa saltzen da. Easy Walker marka. Erosteko asmoa duenarekin prezioa adostuko da. Harremanetarako, 607 49 06 51.
- Emaztegaia eta almirantearen jantzi bana jaunartzeetarako. Merke. 943 37 00 92

Lan-eskaria

- Erizaintzako laguntzaile euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. 622 92 55 62 (Esther).
- Etxe edo portaletako garbiketa egiten edo pertsona adinduak zaintzen lan egingo nuke. Externa modura. 680 41 49 63.

Lan-eskaintza

- Pertsona bat behar da eskolako autobusetik jaistean haurrak jaso eta ordubete inguruz zaintzeko, astean hiru arratsaldetan. Euskara jakitea ezinbestekoa da. Patricia, 677 59 57 80.

Bestelakoa

- Ile-apaintzaile profesionalak etxez etxekozerbitzua eskaintzen du. Cristina, 633 31 69 98.
- Euskara, ingeleza edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 76 60 68.

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirolegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

EUSKARA



Ikastetxeetako eta Ttakuneko ordezkariak, alkatea eta euskara batzordeko burua hitzarmen-sinatze ekitaldian.

Lasarte-Oria euskalduntzen jarraitzeko lanean

Euskara sustatzeko hitzarmenak sinatu ziren

Lasarte-Oriako euskararen bilakaera handia izan da azken urteetan. Batez ere, haur eta gazteen artean nabari izan da euskararen erabileraren garapena eta hori ahalbidetu dute hainbat eragilek antolatzen dituzten programek. Gure herriaren euskalduntzeak aurrera egin dezan, Lasarte-Oriako Udalak euskara sustatzeko hitzarmenak sinatu ditu ikastetxeetako guraso elkarte eta Ttakun kultur elkartearekin.

TXINTXARRI

Landaberriko Guraso eskola, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe guraso elkarte, Lasarte-Usurbil Institutuko Kaxkarro guraso elkarte eta Ttakun kultur elkarte euskararen aldeko hitzarmenak sinatzeko bildu ziren Lasarte-Oriako Udalan asteartean. Hitzarmen-sinatze ekitaldian Jesus Zaballos alkatearekin batera, Euskara Batzordeko burua Jon Antxor-doki izan zen.

Antxordokik berak egin zituen aurkezpenak eta euskararen normalizazioaren alde ematen den pauso garrantzitsua dela adierazi zuen. Hitzarmenaren filosofiak adierazten du Udalak,

Ttakun kultur elkarteak eta lau ikastetxeek elkarrekin landu dituztela Lasarte-Oria euskalduntzen jarraitzeko lan-lerro nagusiak eta programa zehatzak.

Horretarako, Landaberriko Guraso eskolaren izenean Miren Zalduak bi hitzarmen, eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe elkarte Pello Sanchez, Lasarte-Usurbil Institutuko Kaxkarro guraso elkarte Juan Jose Martin eta Ttakun kultur elkarte Tomas Arrizabalagak hitzarmen bana sinatu zituzten.

Hamar programa

Ttakun elkarteak 191.999,23 eurotako diru-laguntza jasoko du Udako txokoak, Udako kanpaldiak, Gazte kluba,

Kuadrillategi, Gazteen hizkuntza trebetasunak garatzen, Famili transmisioa, Solaskide solasbide, Erakundeak euskalduntzen, Bertso Eskola eta Txintxarri aldizkaria programak aurrera eramateko.

Hitzarmenean jasota dago Ttakun Kultur Elkarteak diru-laguntza justifikatuko duela enpresa eskudun batek ikuskatuta.

Ikastetxeetan

Diruz lagundutako programen artean daude ikastetxeetako Irakutrezin, Esazu eta Irrintzi aldizkariak, pertsonaia ezagunen bisitak, eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko 'Hezitzaileek asko egin dezakete!' programa, 'Lagunarteko hizkerarekin jolasean' programa, 'Elemeleka' programa edo 'Gu ere bertotan' programa bezalakoak.

Lau ikastetxeekin sinatutako hitzarmenak desberdinak badira ere, guztira lauen artean, 52.487,09 eurotako aurrekontua suposatu dio Udalarari.

SANTA ESKEA

Ahotsa eta makilak oles egiteko prest

Otsailaren 4a, ostegun gizona izateaz gain, Santa Ageda bezpera da. Euskal Herrian lagun taldeak kalera ateratzen ziren haien ahotsaz giroa berotu eta oles egitera, ohiturari eutsi eta gaur egun ere kantuan jarraitzen dute herrietan. Horietako bat Lasarte-Oria dugu.

Goizean, eguraldiak laguntzen badu, Landaberri eskolako txikiek makinak eskuan erdialdeko kaleetatik oles egingo dute.

Arratsaldean, berriz, Zabaleta auzoko kideak izango dira lehenak ateratzen. Auzoko kale eta baserrietan kantatu ostean, sagardotegian indarrak berreskuratuko dituzte. Aipatu digutenez, "aurten ez da entsegurik egingo, bakoitzak bere etxean prestatu beharko ditu abestiak".

Beranduago, Bertso Eskola, Xumela korua eta txistulari taldeak herriko kale eta tabernak alaituko dituzte haien koplak eta doinuekin.

Erketz EDTko lagunak ahotsak ere herriko kale eta inguruko baserrietan entzungo dira. Hitzordua prestatzeko entsegua antolatu du taldeak otsailaren 3an 20:00etan.

HITZALDIA

Lasarte-Oriako hezkuntza proiektua aztergai

Otsailaren 2an, asteartean, arratsaldeko 19:00etan Manuel Lekuona Kultur Etxean, 'Lasarte-Oriako curriculum eraiki. Orioko esperientzia' hitzaldia antolatu da.

Honetan Orioko curriculum taldeko Ruben Iglesias eta Ainhoa Zumetak haien esperientzia aurkeztuko dute.

Era berean, Lasarte-Oriako hezkuntza proiektu propioa izateak duen garrantziaz ere arituko dira.

INAUTERIAK

Kontzertu bufoa ostegun gizenan

Udal Musika Eskolako kideek Inauteriei hasiera emango diete Lasarte-Orian. Ostegun gizenan, otsailaren 4an, arratsaldeko 19:00etatik aurrera ikasle eta irakasleek kontzertu bufoa eskainiko dute.

Musika eskolako instrumentu ezberdinetako ikasleek bakarka, bikoteak edo taldean saio honetarako prestatutako doinuak eskainiko dituzte.

IKASTAROAK

Emakumearen Zentro Zibikoko ikastaroetan izena emateko epea irekita

Otsailaren 1etik 3ra eman ahal izango da izena Emakumearen Zentro Zibikoan bertan. Doako eta ordainpeko ikastaroak emango dituzte. Informatikarekin zerikusia dutenak ere eskainiko dituzte, KZ Gunearekin elkarlanean.

Sexuari buruzko aholkularitza zerbitzua ostegunetan 18:00etatik 20:00tara irekita dagoela gogorarazi dute.

Informazio gehiago www.txintxarri.eus webgunean eta Zentro Zibikoan bertan.

Mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzearen erronkak

Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten herritarrek hitzaldi interesgarria entzun zuten kultur etxean astearte arratsaldean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 'Sendian' programan psikologo gisa aritzen den Karmele Gurrutxagaren eskutik. Besteak beste, etxeetan zaintza-lanak egiteak dituen erronken inguruan hitz egin zuten.

Gurrutxagaren esanetan, familia batek mendekotasuna duen pertsona bat zaintzean planifikazioa egin dezake

aurrez, baina nabarmendu zuen egunerokotasunak "aldatu" egin ohi duela hasierako planteamendua, "kontutan hartzen ez diren hainbat faktore" medio.

Horietako bat da psikologoak "erronka handizat" hartu zuena: Beste pertsona batzuk zaintzea, norbere buruaz ahaztu gabe. "Mugak jartzea zaila da askotan. Norberak ezarri behar ditu, nire ustez. Marra gorriak ere badaude, zaintza lanek eragindako min fisikoa, esatera-

ko", aipatu zuen Gurrutxagak. Era berean, azpimarratu zuen "norbere gorputzak igortzen dituen seinaleak" ez direla kontutan hartzen.

Lasarte-Oriako adibideak

Aldundiaren Sendian egitasmoaren baitan, laguntza-talde batzuk daude; egoera horretan dauden familiekin elkarlanean aritzen dira. Hiruzpalau urtetik hona ere martxan dago herrian; kasu praktikoak eta adibideak ezagutu zituzten hitzaldira bertaratutakoek.



Hainbat herritar gerturatu ziren astearte arratsaldeko hitzaldira.

Euskal Inauteriak Zubietatik Lasarte-Oriara

Inauteri igande arratsaldean konpartsak alaituko ditu herriko kaleak

Hurrengo astean Inauteriak izango dira Lasarte-Orian eta honekin batera, urtero legez, igande arratsaldean Euskal Inauterietako konpartsa izango da. Berrikuntza ugari dakartza egitarauak azpimarragarriena, Zubieta eta Lasarte-Oria arteko desfilea eta zubietarren parte hartzea izango da. Honetaz gain, hurrengo urtera begira aldaketa gehiago izango direla iragarri dute.

TXINTXARRI

Hartzaren esnatzea, xomorroak erretzea... hainbat dira eguna luzatzen hasi eta udaberria gerturatzeko ari denaren sinil gisa erabiltzen diren irudiak. Euskal Inauteriek kolore eta musika alaiekin ere esnatze hori dute oinarri. Euskal Herrian zehar hainbat lekuetan Euskal Inauteriek garrantzia handia dute. Gure herrian Euskal Inauterietako konpartsa-antolatzaileek presentzia eta leku berezia izatea nahi dute eta horregatik, hainbat berrikuntza aurkeztu dituzte aurtengo hitzordura-ko.

Igande arratsaldean

Ttakun KE eta 'Plaza dantza' egitasmoa, Kukuka antzerki eta dantza eskola, Ttiriki Ttarraka eskola, Erketz EDT, Katxiporreta, musikoen taldea, Zubietako lagunak eta Udal ordezkariak izan ziren atzo arratsaldean Okendo plazan Euskal Inauterien egunaren berri ematen.

Arestian aipatu legez, berrikuntza asko dakar aurtengo Euskal Inauterietako konpartsa. Lehena egitarau murritzketari dagokio. Inauteri igandean, otsailaren 7an, aterako da konpartsa baina arratsaldera soilik mugatuko dira ekintzak.

Baina ez da hau berrikuntza bakarra. Izan ere, Iparral-

dean egiten den Zubieta Ituren joaldunen desfilea oinarri hartuta, Gipuzkoako Zubietatik-Lasarte-Oriara egingo baita desfilea.

Zubietarrei harrera zubian

Antolatzaileek azaldu modura, Euskal Inauterietako ekintzak Zubietako herriko plazan hasiko dira, arratsaldeko 16:00etan.

Dantza saio txiki batekin emango diogu hasiera. Bertan muxiko, fandango eta arin-arin-ak dantzatzeko aukera izango da.

Behin gerrialdea astinduta, desfileari ekingo zaio. Musikoaren doinuaren erritmora Hipodromoko zubira arte hurbilduko da konpartsa.

Bertan, lasarteoriatarrek zain izango dira eta 'ongi etorri' dantza batekin harrera egingo diete. Jarraiki, Zubietarrek beste dantza batekin erantzuko dute. 17:00ak aldera, guztiek bat eginik, txokolatada ospatuko dute.

Desfilea Lasarte-Oriako eremura mugitu baino lehen, senidetze dantza bat dantzatu dute elkarrekin.

Okendon amaiera

Jarraian, 17:45ak aldera, Euskal Inauterietako konpartsa Lasarte-Oriako kaleetan barrena Inauterietako giroa hedatuko du.

Hipodromo etorbideetik Tajamarreko biribilgunera, Kale Nagusitik Arkupeko biril-



Euskal Inauteriak konpartsa antolatzen duten eragileak eta Maite Iglesias kultura zinegotzia atzo arratsaldean egin zen aurkezpenean.

gunera. Bertan buelta eman eta berriro kale Nagusia hartuko da Okendo plazan amaitzeko.

18:30ean gutxigorabehera, herriko plazara iritsi eta urtero legez, erromeria ospatuko da Ttiriki Ttarraka eskolako lagunaren eskutik

Suaren ekitaldiarekin emango zaio amaiera egitarauari eta Lasarte-Oriako Inauteri asteburuari.

Antolatzaileek herritarrei otsailaren 7an Hipodromoko zubira gerturatzeko gonbidapena luzatu nahi diete eta batez ere, txantxoz jaztera animatu nahi dituzte.

Jantzi ikastaroa

Baina aurretik, hainbat ekintza egin dira egun hau prestatzeko.

Lehenengo astean, esate baterako, txantxo jantzi ikastaroa egin zen heldu eta haurrekin.

Larunbatean 30 bat haur zein heldu, antolatzaileek banatutako zakuak oinarri hartuz txantxo jantziak nola egin ikasi zuten..

Honetaz gain, lastozko txanoak oihal zatiekin ere apaindu zituzten, giro ederrean.

"Iaz ere egin genuen ikastaroa; ekintza polita iruditzen zaigu birziklapena lantzeko", azaldu dute antolatzaileek.

Jarduerari esker, Euskal Inauteriei apain-apain jantzita egingo diete ongi etorria hainbat herritarrek.

Dantza hitzaldia

Asteazkenean, berriz, 'Korrotik pikutara' saioa egin zen Sasotako gimnasioan.

Saioa hurbildu ziren herritarrek, Euskal Dantzaren garapena ezagutu zuten XVI. mendeko braleatik gaur egungo dantza solteetara.

Oier Araolaza dantzariak eta Gari Otamendi musikariak euskal dantza ezberdinen jatorria eta hauekin lotutako hainbat xebeberia ere azaldu zizkieten entzuleei, hala nola, elizak dantza solteak lizuntzat zituela XVI.-XVII. mendean.

Baina ez zen guztia, teoria izan. Kontakizunekin batera, hurbildutakoek azalduko

dantza ezberdinetako pausoak jarraitu behar izan baitzituzten entzukeek.

Honela, dantzari buruzko istorioak eta dantzak berak nahasten joan ziren Araolaza eta Otamendi.

Hurbildutakoek gustura jarraitu zituzten azalpen guztiak eta baten bat euskal dantzako pauso gehiago ikasteko gogoekin geratu zen.

Eta dantzarekin lotuta, Euskal Inauterietako konpartsa-ko dantzak prestatzeko entseguak ere izan dira 'Plaza dantza' egitasmoaren barruan.

Antolatzaileak pozik agertu dira, egitasmotik kanpoko gazte, zein helduak hurbildu direlako saio hauetara.

Lanketa berezia

Hau guztiaz gain, hurrengo urtera begira Euskal Inauteria konpartsa-ko lanketa sakonagoa egin nahi dutela adierazi dute lan taldeko kideek.

Azken urteetan Euskal Inauterietako konpartsa izan duen bilakaeraren hausnarke- ta egin eta formatu aldaketa behar duela erabaki duteela ere aipatu dute antolatzaileek agerraldian.

"Euskal Inauteriak gaurkotu nahi ditugu, baina ideia tradizionalen oinarrituta. Horren guztiren hezurdura Lasarte-Oriako bizipenak izango dira, noski", aurreratu dute.

Hala ere, taldeak egitasmoa aurrera eramateko herritarren laguntza behar duela argi du eta horregatik, nahi duten herritarrek lanketa parte ahartu dezaketela jakitera eman dute.

Aurtengo Euskal Inauterien ostean, lanketa taldearen bileren berri emango dutela aurreratu dute. Baina Ttakun Kultur elkartera hurbildu eta izena eman dezakete nahi dutenek, baita informazioa eskatu ere.



Txantxo jantzia egin eta lastozko txapelak apaindu zituzten Inauterietako igandean prest izateko. 'Korrotik pikutara' saio berezian hitza eta dantza nahastu ziren.

Juanma Iturriondo AEK jendearen irudi

Egitasmo berriari esker urtero ikasle baten ibilbidea ezagutzera emango da

AEK euskaltegiak egitasmo berria aurkeztu zuen asteazkenean, AEK jendea. Honen bitartez, ikasle prozesuari eta hauen ibilbideari garrantzia eman nahi izan dio euskaltegiak. Horregatik, urtero ikasle baten bizipena erakutsiko du AEK jendea ekimenak. Lehena Juanma Iturriondo herritarra dugu.

TXINTXARRI

Jalgi Kafe Antzokian egin zen asteazkenean AEKren egitasmo berriaren aurkezpena, AEK jendea. Arrazoia, lehen protagonista herritarra dugula, Juanma Iturriondo.

Juanmarekin batera, Mertzxe Mugika, AEKren koordinatzaile nagusia izan zen ekitaldian.

Mertzxe eskerrak eman zizkion Juanmari AEK jendea izatea onartzeagatik eta "euskara bikain ikasteagatik" zoriondu zuen.

AEK jendea

Mertzxe Mugikak azpimarratu zuenez, "zenbakien indarra uka ezina da. Milaka lagunek bere burua euskaldundu eta orain euskaraz bizi dira. Gaur egun, momentu honetan, milaka dira euskara ikasten

ari diren pertsonak. Askok ikasi eta gero mundu berri batera salto egiten dute".

"Ikerketa bat baino gehiagok aipatzen du, azken urteetan 300.000 hiztun berri dituela euskarak. Laurden bat baino gehiagok euskaltegian ikasi du," atxiki zuen.

Kopurua baino, ikasketa prozesuari eta ibilbideari garrantzia eman nahi izan dio AEK-k oraingo egitasmoan eta batez ere, helduaroan euskara ikasi eta euskaraz bizi diren pertsonen.

"Geldialdi, begirada sakona egin eta pertsona baten ibilbidea, ikasten ari dena edo ikasi duena aztertu nahi izan dugu. Ibilbideak anitzak dira," adierazi zuen.

"Pertsona hori ikasleen ordezkari eta ispilu izango da" eta urtean behin ezaguturaziko dute pertsona hori.



Juanma Iturriondo eta Mertzxe Mugika AEK jendea egitasmoaren aurkezpenean.

2016ko AEK jendea eta egitasmoa lehen, Juanma Iturriondo herritarra dugu.

Etxetik kanpo ikasi

Juanmak eskerrak eman dizkion AEK-ri, "zor diot hemen egotea. Eskerrak eman irakatsi zidalako".

Bestetik, AEK jendea izateaz, harro sentitzen dela aipatu zuen, "ni baino hobeto idatzi edo hitz egiten duenik egongo da".

Herritarrek azaldu zuenez, duela 27 urte ikasi zuen euskara eta 2 urte behar izan zituen horretarako. "Euskara hitz egitea nuen helburu, ongi idazteak ez ninduen kezkatzen. Horregatik, erabilpenarekin ikasi nuen".

Juanmak nahiz eta aita euskalduna izan ez zuen euskara etxean ikasteko aukerarik izan, "Eskola Nazionalan ikasi nuen. Ama Goierrikoa zen baina ez zen euskalduna

eta aitak nahiz eta euskara jakin ez zuen denbora luzerik ematen etxean. Ondorioz, etxetik kanpo ikasi behar izan nuen euskara. AEKren helburuarekin bat egiten nuen, euskararen erabilpena sustatu eta hobetzea eta bertan izena eman nuen".

Euskara ikasi ostean, erabiltzea erraza egin zitzaioala aipatu zuen, "euskaltegian amaitzean hitz eginez gehiago ikasiko nuela argi nuen. Momentu batean lortu dezakezula ikusten duzu eta pausoa ematen duzu. Gainera, hitz egiterakoan gaizki esandakoak konturatzen nintzen eta hurrengoan kontuan izaten nuen ikasten joateko".

Bideoa

Egitasmoaren aurkezpenarekin batera, Juanmaren esperientzia jasotzen duen bideoa hedatuko du AEK-k.

Marta Elvira kazetariaren konplizitatearekin batera, Hamaika Tebistak eta AEK-k ekoizitako erreportaje laburra AEKren webgunean nahiz AEKren Youtubeko kanalean (euskalakari-AEK) dago ikusgai, baita gure webgunean ere.

Mikel Peruarenaren bisita Irakurle Txokoaan

2016ko lehenengo saioa egin zuten Irakurle Txokoko kideek. Danele Sarriugarteren gidaritzapeko lehen ere izan da. Lehen Mundu Gerran borrokatutako euskaldunak hizpide dituen 'Su Zelaia' eleberria aztertu zuten, bere idazle den Mikel Peruarenaren Ansaren laguntzaz. 2014ko literaturako Euskadi saria irabazi zuen eleberriak, baina uko egin zion ereñotzuarrak.

TXINTXARRI

Hilero bezala, Manuel Lekuona kultur etxean elkartu ziren asteartean Irakurle Txokoko kideak. Orain arteko gidari Uxue Alberdik amatasun baja hartu berri duenez, bitartean, Danele Sarriugarteren zuzenduko ditu saioak.

Idazle elgoibartarrak beste herri batzuetan ere gidatzen ditu antzeko taldeak, Sopelan eta Elgoibarren bertan, esaterako.

Lehen Mundu Gerra hizpide Mikel Peruarenaren Ansa idazle ereñotzuarraren 'Su Zelaia' eleberria izan da 2016ko lehenengo saio honetako protagonista.

Lehen Mundu Gerran Ipar Euskal Herriko Frantziaren alde borrokatuak izan ziren euskaldunen istorioak

dira liburuaren ardatza. Batez ere, Baionako 49. errejimendua.

Bertaratutakoek liburuari buruzko iritzia partekatu zuten. Gehienek bat egin zuten oso ondo idatzia dagoela esatean. Erabiltako euskara eta euskalkiari buruz ere aritu ziren denbora batez.

Lehenengo Mundu Gerra hain ezagun egiten ez zitzaie la nabarmendu zuten batzuek, euskaldunek bertan izandako papera gutxiagotan aipatu baita. Sarriugarteren azaldu zuenez, euskaraz egindako guda literatura gehiena Espainiako Gerra Zibilari buruzkoa izan da.

Dokumentazio lana

Peruarenaren liburua idazteko prozesuari buruz aritu zen bertaratutakoekin. 2009an bere aurreko eleberria, 'Ez



Lehen Mundu Gerrako gaiak aztertu zituzten astearteko saioan.

obeditu inori', amaitzean hasi zuela aipatu zuen.

Denbora luzean dokumentazio lan handia egin zuela azpimarratu zuen. Besteak beste, Gerra kronikak, liburuak eta orduko prentsa aztertu zituen. Euskara hutsez argitaratzen zen 'Eskualduna' aldizkaria, esaterako.

2014an literaturako Euskadi sariari uko egin zion Peruarenaren. Finalisten artean hautatu zutela jakitean, epaimahaiari eskutitza idatzi zion

bere erabakiaren berri ematen. Irabazle izendatu zuten, azkenik. Azpimarratu zuten bere hautua errespetatzen zutela, baina urte hartan euskaraz egindako eleberri onena saritzeko ardura zutela.

111 Akademiaren saria jaso zuen, ordea. Azaldu zuenez, "irabazi ekonomikorik ematen ez duelako eta garaiak irakurleek beraiek hautatzen dutelako". Halaber, hori onartu izateak "ezinegona" sortu ziola nabarmendu zuen,

eta ez zuen halakorik nahi Euskadi sariarekin.

Hurrengo saioa

Otsailaren 16an elkartuko dira berriz Irakurle Txokoko lagunak. Katixa Agirre gasteiztarren 'Atertu arte itxaron' aztertuko dute.

Bere lehenengo eleberria da, eta Euskal Herriko zehar egindako *road movie* baten antzeko formatua du. Gune eta historiako gertakari ezberdinak erreparatu egiten ditu Agirrek.

LABURRAK.-

Donostiako Nazioarteko 61. Krosa igandean

Igandean Euskal Herriko eta munduko korrikalari onenetako batzuekin gozatzeko parada egongo da Hipodromoan. 12:30ean hasiko dira lasterketa nagusiak, eta 10:00etan, nberiz gaztetxoek. Emakumezkoen frogan, zirkuitoari hiru itzuli handi eta mozutako handi bat emango dizkiote, guztira 8.142 metro eginez. Belaynesh Ojira eta Hiwot Ayalew etipopiarrek dira froga irabazteko faborito nagusiak.

13:15ean hasiko dira gizonezkoak. Guztira, 10.142 metro egingo dituzte. Imane Merga etiopiarra izango da aurtengo faborito nagusia.

Herriko hainbat gazte-txo Euskadiko Kross txapelketetan ariko dira, duten kategoriaren arabera, alebinetatik hasi eta juniorretara bitartean, 10:00etan.

Bestalde, Raul Gomez Margallo herriko lasterkariak absolutu mailako gizonezkoen Kirolprobak liga irabazi du, hirugarren urtez segidan. 1996,80 puntu zakuratu ditu 18 lasterketatan; horietatik 4 irabazi ditu. Beste urte batez, iraupen luzeko atleta herriko onenetakoa dela berretsi du Gomez Margallok.



Babyauto Zarautz errugbi taldeak lidertzan jarraitzen du Uribealdeari 14-13 irabazita

Saillapenaren maila gorenean jarraitzen du Ohorezko B mailan ari den Babyauto Zarautz taldeak. Majo sufrituta, hori bai; 14-13 hartu zuen mendean hirugarren sailkatua, Uribealdea talde bizkaitarra hain justu. Ander eta Xabier Rekondo herritarrak ederki aritu ziren erasoan zein defentsan eta David Vegak berriz, aulkian egon arren ez zuen minuturik jokatu. Aste honetan Coruña (Galizia) joango da taldea, CRAT A Coruña taldearen aurka indarrak neurtzera. Igandean jokatuko dute, 12:00etan.

14 urtez azpiko Lavie ZRT-Beltzak taldeko gaztetxoek ere garaipena erdietsi zuten pasa den asteburuan; 12-21 Bera Beraren kontra. Larunbatean partidu erabakiorra jokatu dute gaztetxoek Michelenin, 13:15ean, Atletico San Sebastian eta Zaisa Irun taldeen konbinatu baten aurka. 10 eta 12 urtez azpiko errugbi eskolek igande goizean edukiko dute hitzordua Michelenin.

Mikel Esnal Espainiako txapeldun master-aurre kategorian (20-24 urte), 50 tximeleta proban

Ezin hobeto ekin dio Buruntzaldea IKTKo igerilariak Gijonen jokatzeko ari den Espainiako txapelketari. Esnalek lehenengo postua eskuratu zuen atzo 50 tximeleta proban, master-aurre kategorian (20-24 urte bitartekoak). Horrez gain, marka pertsonal berria ezarri zuen: 25 segundo eta 68 ehuneko, hain zuzen. Esnal bera eta Hartz Mitxelena ari dira konpetitzen bertan; 10. postuan sailkatu zen Mitxelena, 27"93ko denbora eginez. Igandera arte ariko dira bi igerilariak Asturias aldean.

GIMNASIA ERRITMIKOA.-

Iritsi zaie konpetitzeko ordua

Gipuzkoako txapelketarako lehen kanporaketa jokatu dute LOKEko hainbat gimnastak asteburu honetan, Azkoitin

Kiroldegietako tapizetan euren dohainak erakusteko garaia dute LOKEko gimnastek. Hainbat hilabetez entrenatzen aritu ostean, asteburu honetan konpetituko dute estreneko saso honetan, Azkoitin. Gipuzkoako txapelketarako lehenengo kanporaketan lehiatuko dira gimnastak, hainbat kategoriatan.



Azkoitiko kiroldegiko tapizean ariko dira bihar eta etzi LOKEko hainbat gimnasta.

TXINTXARRI

Denboraldiko aurreneko konpetizioa izaki, gimnastak "berde samar" daudela dio Maite Rueda prestatzaileak, "kontzeptuak ikasi berriak" baitituzte. Hori horrela izanik ere, barruan daramaten guztia emango dute denek kategoria bakoitzeko lehen 10 sailkatuen artean egoteko.

Gipuzkoako txapelketarako lehen kanporaketa jokatu dute bihar eta etzi Azkoitin. "Saillapeneko ahalik eta postu onenak lortzea da helburua, bigarren kanporaketan Gipuzkoako txapelketarako txartela lortzeko aukerak izan ditza-gun", zehazten du Ruedak. Batu egiten dira bi kanporaketetako emaitzak, eta kategoria bakoitzeko lehen hamar gimnastak sailkatzen dira Gipuzkoakoan aritzeko.

Ruedaren hitzetan, "zaila" izango da helburu hori erdieste, aurtan "aurkari asko" edu-

kiko baitituzte LOKE klubeko gimnastek. Kadeteen adibidea jarri du: "Uztaiekin ariko da Angely Gonzalez; 32 aurkari izango ditu denera. Ea gainontzekoen maila nolakoa den".

Maila onenekoen txanda

LOKEko gimnasten prestatzaileak azaltzen duenez, asteburu honetan "maila altueneko gimnastek" eta "beteranoen" hartuko dute parte Azkoitiko kanporaketan, Eskolarteko A eta Amateur kategorian.

Bi egun eta txandatan ariko dira LOKEko gimnastak: larunbatean arratsaldean eta igandean goizez.

Arestian aipatutako Angely Gonzalez ariko da larunbatean arratsaldean, uztaiekin. Ruedak aipatu duenez, 16:00etatik 20:00etara bitartean lehiatuko da gimnasta gaztea.

Igandean goizean iritsiko da gainontzekoen txanda. Senior A kategorian, bakarka eta

uztaiekin baita ere, Aizpea Arroyo eta Garazi Gomez ariko dira. Jubenil B mailan berriz, bakarka eta mazekin, Alazne Gonzalez. Orain arte taldekako txapelketetan hartu du parte Gonzalezek; Azkoitin estrenatuko da indibidual gisa.

Beste hainbat gimnastak ere hartuko dute parte, taldeka. Jubenil A mailan, mazekin, lau neska ariko dira: Naroa Sanz, Nora Fabian, Alazne Gonzalez eta Haizea Gomez. Kadete B kategoriatan aldiz, uztaiekin duten trebezia erakutsiko dute tapiz gainean. Sei gimnastak osatuko dute aipatu talde hori: Marta Apeztegiak, Julene Rodriguezek, Angely Gonzalezek, Jaione Martosek, Arian Martinezek eta Nagore Irurietak.

Aipatutako horiek denak 10:00etatik 14:00etara lehiatuko dira. Hainbat hilabetez zehar gogor entrenatu ostean, konpetitzeko ordua dute orain.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 30

Michelin, 9:45ean

Ostadar SKT - Martutene
Infantil txikiak, errendimendua,
8. jardunaldia.

Michelin, 11:15ean

Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro
Jubenil Ohorezko maila,
18. jardunaldia.

Asti Txiki, Zarautz, 15:30ean

Zarautz KE - Texas Lasartearra CF
Erregionalen I. maila, Kopa,
5. jardunaldia.

Michelin, 17:35ean

Ostadar SKT - Anaitasuna CD
Erregionalen Ohorezko maila,
20. jardunaldia.

Igandea 31

Michelin, 12:30ean

Ostadar SKT - Tolosa CF
Emakumezkoen Lurralde maila,
igoera fasea, 6. jardunaldia.

PILOTA

Ostirala 29

Michelingo pilotalekua, 20:00etan

Intza - Eskoriatza
Seniorren Igo maila,
Udaberri txapelketa.

Larunbata 30

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza KEko 2. mailako jubenilak
zein seniorrak Udaberri txapelketan
murgilduta dabilta. Intxurre eta
Goierri taldeen aurka ariko dira,
hurrenez hurren.

IGERIKETA

Larunbata 30

Usabal kiroldegia, Tolosa, 10:00/17:00

Buruntzaldea IKTKo infantilek
Euskal Herriko Neguko txapelketa
jokatuko dute goiz eta arratsaldeko
jardunaldietan.

SASKIBALOA

Larunbata 30

Aiete kiroldegia, Donostia, 16:00etan

Atletiko SS - Ostadar SKT
Junior neskek, Euskal Liga,
Igo jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT - Easo 01
Errendimenduko kadete neskek,
bigarren fasea,
2. jardunaldia.

Don Bosco, Orereta, 18:00etan

Gamon - Ostadar SKT
Senior gizonezkoen 3. probintziala,
bigarren fasea, 4. jardunaldia.

ATLETISMOA

Larunbata 30

Belodromo, Donostia, arratsaldean

LOKE taldeko atleta kadete, jubenil
eta juniorrak ariko dira Gipuzkoako
txapelketan, hainbat probatan.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 31

Usurbilgo frontoia, 9:30ean

Hainbat herritarrek hartuko dute
parte 'Irisasi BTT Hotzak Akabatzen'
proban, Andatza mendian barrena.
Laugarren edizioa da aurtengoa.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 29

Kirol gunea, 19:45ean

Ilargi - Txindoki
Kirol gunea, 20:45ean
Trumoi - Txoko

Kiroldegia, 20:55ean

ISU Leioak - Euskalduna SD
Gipuzkoako Igo maila,
15. jardunaldia.

Larunbata 30

Kirol gunea, 9:15ean

Izkiña - Urdaneta HK

Kirol gunea, 10:15ean

Indaux - Reformas Lagunak

Kirol gunea, 11:15ean

Viña del Mar - El Punto

Kirol gunea, 12:15ean

Also - Kattagorri Insausti

Agenda

Gaur, ostirala, 19:30ean, Ama Brigitarren komentuan



Barrokoko musika berriro Brigitarretan

'Duo L'Incontro' taldearen kontzertua Danok Kideek antolatzen dituen XI. Musika Topaketan barruan. Francesca Romana di Nicola harpista eta Itziar Lujanbio oboejoleak osatzen dute bikotea. Barroko garaiko egileetan oinarritutako 'Il salotto barocco' egitaraua eskainiko dute. Emanaldira hurbiltzen diren herritarrek, esatea baterako, Händelen 'Lascia ch'io pianga' edo Vivaldiren Lau Urtaroetako Neguko 'La pioggia' doinuez gozatuko dute.

Santa Eskea

ANTONIO BLAS PLAZA

Osteguna 4, 18:00etan

Zabaleta auzoko kideek auzo eta inguruko baserriak bisitatuko dituzte.

JALGI KAFE ANTZOKIA

Osteguna 4, 18:30ean

Bertso Eskolako kideak, Xumela koruko lagunak eta txistulari taldea Santa Eskean aterako dira herrian zehar.

ZUMABURUKO LOKALA

Osteguna 4, 18:30ean

Erketz EDTko lagunak baserrietara hurbilduko dira eskea egitera.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Urtarrilean zehar

Jose Luis Oria margolariaren lanak, lore, paisai edo bodegoiak ikusgai.

Lasarte-Oria

Musika

JALGI KAFE ANTZOKIA

Ostirala, 23:00etan

Petti abeslari beratarraren kontzertuaz gozatu ahalko da. Sarrera doan.

JALGI KAFE ANTZOKIA

Larunbata, 22:00etatik aurrera

Autumn bakarlarria, eta Indian Feathers eta RoadHouse taldeak arituko dira. Pop-Rock eta Indie estiloak jorratuko dituzte. Sarrera doan

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna 4, 19:00etan

Udal musika eskolako kideek Inauterietako kontzertua eskainiko dute. Doan

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'Aviones de papel' filma. Sarrera, 3,80 euro.

Igandea, 19:30ean

Helduentzako zinea atalean, 'Palmeras en la nieve' filma. Sarrera, 5,50 euro.

Ostirala 5, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen eskutik, 'Grandma' filma ikusteko aukera. Sarrera, 5,50 euro.

Hitzaldia

VILLA MIRENTXU

Larunbata, 11:30ean

'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' hitzaldi zikloaren aurkezpena

gingo da. AldarriCATuz taldea Herrialde Katalanek bizi duten egoerari buruz mintzatuko da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 02, 19:00etan

'Lasarte-Oriako curriculum' eraiki. Orioko esperientzia hitzaldia eskainiko dute Ruben Iglesias eta Ainhoa Zumeta Orioko curriculum taldeko kideek.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 18:30ean

Tartean teatro konpaniak 'Amour' lana eskainiko du. Haurrentzako eta helduentzako egokia den lana da. Sarrera, 3,80 euro.

Usurbil

Hitzaldia

POTXOENEA KULTUR ETXEA

Gaur, ostirala, 18:30ean

Ainhoa Intxaurrendietak 'Errauskailua Gipuzkoan. Ez al genuen, ba, gelditu?' hitzaldia eskainiko du.

Andoain

Antzerkia

BASTERO KULTURGUNEA

Gaur, ostirala, 21:30ean

Vaiven Producciones taldeak 'Happy end' antzezlan. Sarrera, 12 euro. Gaztelaraz.

Herritarren txokoa

Galdutako betaurrekoak

Ikusteko betaurrekoak galdu ditut Sasoeta ibilbideko pasean, N-1 errepide parekoan edo Plazaola bidean.

Aurkitzen dituenak mesedez jarri harremanetan honako telefono zenbakian, 600 67 78 72 (Axun).

Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jokasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke. Interesa duena jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

Eskutitza

Oporrak bakean... edo jolasean, edo ametsetan

Nolakoa ote zen? Zer itxura izango ote zuen. Goseak amorratuta etorriko zela uste nuen. Txikitxoak, argala, mugitua, alaia, ausarta... Adjetibo horiek nerabiltzan nire buruan haren zain nengoenean bus geltokian. Ikusi nuen lehenengo aldian, ikaratuta eta oso nekatur zegoen egindako bidaia luzearen ondorioz; lehoiabar jantziak eta motxila txiki bat zen soinean zeraman gauza bakarra. Eskua eman zidan, eta begiak malkoz lausotuta, nirekin etorri zen etxe aldera. Baso bat ur edan eta loak hartu zuen sofan kiribilduta.

Saida ez da, ordea, Saharatik datozen beste haurrak ikusita, buruan nuen bezain mugitua eta ausarta. Ez zegoen goseak amorratuta, gose greba egin zuen hiru egunean. Ez zaio gehiegi gustatzen kirola egitea, ezta kaletik korrika ibiltzea ere. Igerilekuak oso gustuko baditu ere ez zuen segituan ikasi igeri egiten, bizikletan ibiltzerik ez du lortu, patine-

tean bai ordea. Patinetea maletan sartu nahi zuen, gero bere etxe inguruan ibiltzeko nonbait. Etxean egoteak segurtasuna ematen dio, telebista eta sofa atsegin ditu gehien bat.

Etorri zenean oso argal zegoen arren, ipurdi brasileiroa eraman du bere etxera bueltan. Altua da ordea, zango eta beso luze eta argalak ditu. Haren afro itxurako ileak jendea liluratzen du, baina ondo orraztu eta mototsean biltzeko ohitura du beti. Oso irribarre polita duen arren, eskuak aho aurrean jartzen ditu urak eragindako orbanak ikus ez daitezen. Mahatsen antzeko begi ilun politak ditu.

Alaia bai, oso alaia da, maitagarria, jakin min handia agertzen du, bromazalea eta jenio bizikoa, bizkorra, behatzailea eta erraz moldatzen dena, halabeharrez.

Udara noiz iritsiko zain gaude etxean, urte osoa pasa dugu udarako oroitzapenei tiraka. Negarrez

etorri zinen eta negarrez joan ere. Hartu taiara eta zatoz gurera, elkar ezagututa, aurten errazagoa egingo dugu bidea.

Marijo M.

Oporrak bakean egitasmoko harrera familia kidea

Zuen oharrak jarri, keak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintzarri@txintzarri.eus

Inauteriak kultur eskaintzaren ardatz

Otsaileko kultur ekintzak jakitera eman ditu Udalak

Datorren hilabetean egingo diren kultur ekintzak aurkeztu ditu Udalak. Inauteriak dira ardatza, baina zinemarekin, musikarekin eta antzerkiarekin ere gozatzeko aukera egongo da. Gainera, Lasarte-Oriak 30 urte beteko ditu udalerrri bezala osatu zenetik, eta hori ospatzeko ekitaldi berezia egingo dute hilaren 13an Julian Sagardiak bildutako argazkiak erakutsiz Zero Sette Akordeoi orkestraren laguntzaz.

Otsaileko kultur agenda aurkeztu du Udalak. Inauterietako asteburuak pisu handia izango du hilabete honetan, baina beste zenbait ekitaldi antolatuta dituzte.

Zinema

Ostiral mehean, hilaren 5ean, Okendo Zinema Taldearen eskutik zineforuma egongo da. 'Grandma' filmea eskainiko dute. 19an beste saio bat egiteko asmoa dute, 'La novia' lanarekin.

Haurrentzako hiru filme proiektatuko dituzte hil honetan. 'Carlitos y Snoopy' 14ean, 'The Snow Queen' euskaraz 21ean eta 'Alvin y las Ardillas' 28an.

Helduentzako, aldiz, beste hiru botako dituzte: 'La Quinta Ola' 14ean, 'La Novia' 21ean eta 'The Revenant (El Renacido)' 28an.

Prezioak ohikoak izango dira. Umeentzako sesioek 3,80 euroko kostua dute eta

helduentzakoak eta zineforumak 5,50 eurokoa.

Itsaspeko Zinemako Nazioarteko Zikloa

Donostiako Itsaspeko Zinemako Nazioarteko Zikloaren barnean hainbat lan proiektatuko dituzte Lasarte-Oriako Danok Kide guraso elkarteak antolatuta; hilaren 8an, 15ean eta 22an.

Horien artean David Sanchez Carretero lasarteortarraren 'Kantauri itsasoan urpekaritza egiteko arrazoiak' film laburra eskainiko dute.

Txanogorritxo

Herriko hurrek 'Txanogorritxo' ipuin ezagunaren moldaketa batekin gozatu ahal izango dute otsailaren 20an. Glu Glu antzerki taldearen eskutik dator, eta Galder Perez da zuzendaria.

Musika

Ostegun gizenan Udal Musika Eskolak kontzertu bufoa



Udal ordezkariak otsaileko kultur egitaraua aurkeztu zuten atzo.

eskainiko du. 26an Musika Topaketekin jarraituz, kontzertua egingo dute Brigitarren komentuan. Hurrengo egunean opera proiektio digitala emango dute kultur etxean. Puccini konpositorearen obretako zatiak eskainiko dituzte oraingoan.

Lasarte-Oriak 30 urte

Lasarte-Oria udalerrri gisa osatu zenetik 30 urte beteko dira otsailaren 15ean. Hori ospatzeko 13an Julian Sagardia herritarrek jasotako argaz-

ki bilduma erakutsiko dute, 'Lasarte, 1986ko otsailaren 15a' izenez. Zero Sette Akordeoi orkestrak lagunduta 'Gogoratzen duguna gara' diaporama ere proiektatuko dute.

Inauteriak

Konpartsekin batera, hurrengo astean egingo du Inauterien aurkezpena Udalak. Egitaraua jakitera eman zuen atzo.

Larunbatean, bazkaldu aurretik, sagardo barrikotea izango da Okendo plazan,

eta pintxo-potea ondoren 'Oaintxe In Deu' txarangak lagunduta. Karrozen eta mozorroen lehiaketa ere egingo da.

Tripak ondo bete ondoren, bingoarekin zortea frogatzeko aukera izango dute herritarrek. Konpartsek desfilea hasiko dute arratsaldeko 17:00etan. Bukatzean, txokolatada izango dute zain. 19:00tatik aurrera dantza egin ahal izango da Bide Batez erromeriarekin. Gaua, berriz, DJ Jotaxok girotuko du.



**SANTA TERESA
IKASTETXEA**

0-18 URTE BITARTEKO HEZIKETA

Tel. 943 21 17 64

www.santateresaikastetxea.com

secretaria@donostia.teresiaeskola.com



kristau-eskola

Matrikula epea zabalik:

urtarrilaren 25etik
otsailaren 5a bitarte



Gure heziketan berrikuntzak du lehentasuna

**OTEGI
SAGARDOGIA**

Urtarrilaren 30ean irekitzen dugu,
EGIN EZAZU TXOTX LASARTEN!!

ERRESERBA EGITEKO:

943 36 50 29

654 80 61 63

Solla-Enea Baserria
Zabaleta auzoa
20160 LASARTE-ORIA
(Gipuzkoa)